

Generorik gabeko etxea. Prozesatzeko hausnarketak

Laburpena: Artikulu honetako hausnarketa etxebizitzaren konfigurazioan genero-rolen eragina irakurtzeko, baloratzeko eta zalantzan jartzeko tailer batean oinarritu da. Eztabaida horrek pertsonen bizilekua egungo baldintza, nahi eta beharretara eraldatzeko asmoa dauka.

Hitz-gakoak: genero-rolak, etxebizitza, egunerokotasuna, arkitektura.

Abstract: This article presents a set of reflections from a workshop that reads, values and questions the influence of gender roles in housing configuration. This is a debate in construction that motivates changes to respond to the particular circumstances, aspirations and needs of people and their habitat.

Key words: gender roles, housing, everyday life, architecture.



Marta Fonseca Salinas
Arkitektoa Col•lectiu Punt 6-eko kidea

Bidaltze data: 2017-04-29
Onartze data: 2017-05-18

«Generoa arkitektura eta hirigintzaren analisi-parametro gisa txertatzea kritika feministaren eskaera bat da, bereziki zientzia sozialetatik, pertsonen bizitzaren eta haien bizitza proposatutako bizilekuen arteko loturen galerak agerian uzteko» (Fonseca, 2014: 84). Genero-perspektibadun planifikazioa duten analisiak frogatzen dute pertsonen espazioen esperientzia desberdina dutela genero-rolen arabera eta diferentzia horiek konplexuagoak dira beste ezaugarri batzuk antzematen direnean, zeinek bizitokiak esperimentatzeko moduetan eragina baitute: adina, erlijioa, etnia, dibertsitate funtzionala, etab.

Bizitokiaren proposamenean, definizioan eta eraikuntzan, bai arkitekturaren bai hirigintzan, Col•lectiu Punt 6-a genero-rolen¹ eragina zalantzan jartzen ibili da. Aldizkako modu batean eta aukera desberdinak aprobeztatuz, espezifikoki etxebizitzetako espazio domestikoa jorratu da. Hasiera batean arlo akademikotik eta gerora hausnarketa kolektibo gisa, gizarteak eraikitako eta historian eta gure garaiko kulturaren bitartez transmititutako genero-rolen eragina eztabaidatu da.

«Generorik gabeko etxea» tailerraren eztabaida puntu hauetan oinarritu da: etxebizitza estandarren modeloen, higiezinaren merkatuaren eta etxebizitza publikoaren motibazioetan —hala nola publizitate, telebistako telesail eta pelikula, hezkuntza, etab.— eta rolen transmisioan.

¹ «Sexuen arteko diferentzia biologikoan oinarritzen den eraikuntza sozial eta kulturala da, emakumeei eta gizonei jokabide eta ezaugarri emozional eta intelektual desberdinak ezartzen dizkie, zeinak gizarte eta garai historikoaren arabera aldatzen diren. Diferentzia biologiko horretan oinarriturik, generoak emakumeen eta gizonen arteko erlazio sozialak eta botere-harremanak konfiguratzeko moduak» (Col•lectiu Punt 6, 2013: 17).

Etxebizitza genero-rolen eraginetik kanpo ote dagoen galderak zalantzan jarri eta eztabaidatzera eraman ditu bertan sortzen diren erlazio sozialak, islatzen duten bizimoduaren transmisio kulturala eta etxebizitza-ereduaren immobilismoa, zeinak ez dituen ezagutzen bizilagunen esperientzia eta nahiak.

Pertsona desberdinen parte-hartzearekin eztabaida aberastu egin da: «Máster Laboratorio de la Vivienda del Siglo XXI»-ko hainbat ikastarotako ikasleak, nerabe eta gazte taldeak, elkarbizitzarako zenbait talde, kulturaren arloko pertsona talde heterogeneoak, denek jatorri, interes, maila sozioekonomiko, adin eta jakintza arlo-desberdinetako batuketa ekarri dute.

Tailerreko hausnarketak eta hemen aurkeztzen direnak prozesu baten barnean irakurri behar dira, esperientziatik ikasiz, pertzepzioa aintzat hartuz eta gaur egungo bizitokiaren eta egunerokotasuneko beharren arteko desadostasunak adieraziz. Elkarrizketara zabalik daude, proposagarriak dira eta ez dira eztabaidaezina.

- Etxebizitza-tipologiek ez dituzte islatzen kulturari lotutako ezaugarriak, baldintza ekonomikoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak. Etxebizitzetan, adibidez, egoteko edo elkarrekin banatzeko espazioek ez dituzte islatzen ohitura kulturalak, besteak beste kozinatze, elkartze edo bizilagunekin erlazioatzeko moduak. Ezta horien programetan ere, ez dute behar ekonomikoaren inguruko konponbiderik planteatzen, esate baterako, lan ordaindua garatzeko espazioak planteatuz; aintzat hartzekoa da, izan ere,

gurasobakarreko etxebizitzaren² % 84,6 emakumeen kargu daudela, etxeko eta beste pertsonen zaintzalanen arduradunak izanik. Oro har, lan-espazioak deslokalizatzen diren espazio horiek, adibidez teknologia berrietatik eratorriak, ez dira aurreikusten. Gainera, etxebizitza-ereduak zurrunkak dira eta tarte txikia uzten dute behar xumeak aintzat hartzeko, adibidez, bainuontzi bat dutxa-plater batekin ordezkatzeko, pertsona helduak edo dibertsitate funtzionala dutenak biziko direla jakinik. Dibergentzia asko pakete estandarretan burututako etxebizitzaren ondorio dira, eta egokitu egin behar dira erabiltzen hasi baino lehen.

- Aktibitateen esparruan, etxearen eta beste pertsonen zaintzan dihardutenak, domestiko, erreproduktibo edo nahi dugun moduan deitu, argi dago ez direla soilik etxebizitzaren barnealdean egiten. «Egunerokotasuna ez da etxebizitza osatzen duten paretan barnealdean produzitzen. Gainera, aktibitate, jokabide, sentsazio eta esperientzia horiek espazio publikoan erreproduzitzen dira, zeina orain arte espazio maskulino kontsideratu baita» (Bofill, 2005:30). «Generorik gabeko etxea» tailerrak barne eta kanpo arteko tarte-espazioak bizitzazikloetan elongazio desberdinak dituela egiaztatu du, eta baita pertsonekin eta inguruaren ezaugarriekin ezartzen diren erlazioen arabera dela. Honez gain, espazio publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiak, genero-erolek bezala, aktibitate produktiboen, erreproduktiboen, propioen eta komunitarioen arteko oreka indargabetzen duela ziurtatu du, pertsonen ekitatean oinarritutako bizitza garatzea ahalbidetzen dutenak. Mendekotasun-etapetan, soilik haurtzarora eta zahartzarora kontuan hartuta, atari hori espazio multzo bat da, non aktibitate partekatuak garatzen diren, eta horiek zaintzen erantzukizuna hobetzen laguntzen dute. Eskailera-buru espazio bat non bertan topatzeko, esertzeko, egoteko, hitz egiteko, jolasteko, landare bat zaintzeko, zerbitzuak trukatzeko aukera dagoen; atondo espazio bat non kanpoaldearekin erlazio bat dagoen eta, ondorioz, kalean gertatzen denarekin parte hartzen duen berdinkideak zaintzeko, kontaktuak ezartzeko, komunikatzeko, kanpoko argiteria hobetzeko, geldiune bat egin eta jarraitzeko, etab. Figuratiboki, atalase edo atari-espazioak ez du zertan kontsekutibo izan, teiltatu lau, behe-oin edo erabilera komuna duten lekuetan kokatu daiteke. Espazio horiek bizitzaren sostengurako beharrezko zaintzen erantzukide izatera deituak dira.
- Zoritxarrez, esan daiteke, etxebizitza publiko zein pribatuko promozioek, lehenik merkatuko parametroei erantzuten dietela (metro karratuaren prezioa, logela kopurua, kokapenaren estandarrik, etab.) eta gero, egungo gizarteko elkarbizitza-taldeetatik urrun dagoen familia-eredu bati. Hasierako abiapuntuak familia nuklearra izaten jarraitzen du, aita, ama eta oinordeko bikote bat, posible bada emakume bat eta gizon bat. Ez da aurreikusten bestelako talderik, hala nola lagunen arteko bizikidetzak, ezkontza desberdinetatik eratorritako familiarrak, soilik gastuei aurre egiteko

elkartzen direnak, elkarrekin laguntza banatzen dutenak, etab. Dibergentzia horrek tipologiaren bilaketa aldatzen du, bai beste distribuzio batzuekin, beste era bateko logela edo erlazio-guneekin, beste lotura bat zerbitzu espazioekin, baita etxebizitza multzoen barnean aktibitateak proposatzeko eta ordenatzeko beste moduekin ere.

- Etxebizitza oinarritzko hiru funtzio hauetarako proposatzen da: deskantsatzea, jatea eta garbitzea, eta eredu fisikoa hiru pieza tipotan deskribatzen da: logelak, jangela-sukaldea eta bainugela. «Generorik gabeko etxea»-ren hausnarketek agerian uzten dute bizipen-esperientziak aktibitateen zerranda handitzeaz gain, haien arteko erlazioak handitzen dituztela, barnebanaketak birmoldatuz, aldaketak ahalbidetuz edo prozesuak sustatuz, etxebizitzaren barne-espazioen segida bilakatzeko, elkarbizitza-talde desberdinen aktibitateak eta eguneroko gertaerak artikulatuz. Jatea ez dadila izan aktibitate soil bat, baizik eta sukaldean, hitz egiten, usaintzen, disfrutatzen, begiratzen, antolatzen, partekatzen den bitartean ematen den denbora. Zirkulaziorako espazioari dagokionez: korridorea, igarobide bat izateaz gain, jolasteko gela bilakatzen da, erantsitako biltegiatze-gune gisa, trantsizio edo egonaldi tenporalak hedatzen eta sortzen diren toki gisa, etab.
- Etxeko lanen denbora-banaketa inguruko ikerketek (emakumeek 28 ordu 21 minutu; gizonak 14 ordu 35 minutu)³ eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza-lanaren inguruko datuek (emakumeak % 70)⁴ erakusten dute nagusiki emakumeak arduratzen direla lan horietaz, eta zientzia ekonomikoetatik izendatu eta deskribatu egin da haren balioa zifratu eta haren bizitzaren iraunkortasunean duen garrantzia (Carrasco, Serrano 2006). Etxeko lanek ekitateak eta pertsonen arteko erantzukidetasunetik urruntzen gaituzten rola erreproduzitzen dituzte eta argi eta garbi esan daiteke etxebizitza barnean duten helburua gutxiesten dela. Horrela, lanok egiteko diren hainbat espazio txanpon-truke dira eta murriztu edo kendu egiten dira, adibidez: harraska, garbitokia, ontzitegia, trastelekua, etab. Bestetik balkoia ere aipa daiteke: pieza paregabea da etxea klimarekin, bizilagunekin, mediterraneo eran egoteko modu batekin lotzeko. «Generorik gabeko etxea»-k espazio horiek ez ditu soilik baloratu euren erabileraeratik, baizik eta jardura indibidual eta kolektibotan sortzen diren loturengatik, elkar zaintzeko, elikatzeko, jantzeko, erlazionatzeko, etab. Beste alde batetik, lotura zuzenak ditu bizi garen inguru fisikoarekin, hau da, kontsumitzen dugunaz konturatzen da, naturarekiko sustatzen den erantzukizun eta oreka, etab. Beharbada, ezaugarri horrek historian zehar ahalbidetu du pieza batzuk kanpoan bizi izatea espazio publiko edo zona komunak garbitzeko, arropak teiltatu lau komunitarioan aireztatzeko, komunitatean kozinatzeko, etxebizitzaren oinaldeetan edo kanpoaldeko

2 INE (2016), <http://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259925472448&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout¶m1=PYSDetalle¶m3=1259924822888>.

3 Idescat. Enquesta de l'ús del temps (2010-2011), <<http://www.idescat.cat/pub/?id=eut>>.

4 INE (2016), <http://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259925472448&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout¶m1=PYSDetalle¶m3=1259924822888>.

sotoetan babesteko, etab. Aktibitate horiek ez daude desagertzeko bidean, ezartzeko eta garatzeko beste forma batzuk gara ditzaketen beharrak dira, bai erabaki pertsonal eta/edo kolektiboagatik, bai ingurugiroarekin beste erlazio batzuk sustatzen eta etxeko lanetan beste erantzunkidetasun forma batzuk dituen programa-proiektu baten determinazioagatik.

«Generorik gabeko etxea»-k bizi izandako lekuen memoria arakatu du, eta esploratu eta esplotatu egin ditu pertsonen eguneroko bizitzako lekuak hautemateko, partekatzeko, transformatzeko eta eraikitzeko baliatzen dituzten esperientzia sentikorrak. Sortutako materialak eztabaida mahaigaineratzeko balio izan du eta lekuen inguruko ezaugarrien inguruan eta ezaugarri horiek nola transformatu daitezkeen hausnartzeko: bizi-zikloak laguntzeko, aktibitate erantzunkideak sustatzeko, egoera tenporaletara egokitzeko, genero-roletatik libratzeko, etab.

Esperientzia indibidual eta kolektibotik abiatu da proposamena, horrela aktibitateak modu erlazional batean izendatu ditu eta azpimarratu ditu jorratzen diren espazioen ezaugarriak. Modu horretan, korridorea jolasteko toki gisa, egongela logela gisa, jangela terraza gisa, balkoia tailer gisa, logela lantoki gisa erabiltzea, hierarkia gabeko logelak, bainugela zatituta, sukalde amankomuna, ortu indibidual eta komunitarioa izatea... ahalbidetzen duten erlazioak konprenitu eta zabaldu behar dira.

«Generorik gabeko etxea»-k ez du deskribatu errepikatzen eredurik. Egun ezarritako, estandarizatutako eta transmititutako etxebizitza-ereduen eztabaidan ibili da, eta horren definizioan pertsonen esperientzia indibidual eta kolektiboa txertatu eta aldaketak proposatu ditu etxebizitzetako espazioak egungo baldintza, xede eta beharretara egokitzeko. Erlazionala, egunerokoa eta domestikoa deskribatzea eta txertatzea beharrezko zeregina da, zaintzen ditugun eta zaintzen gaituzten tokietan aldaketa kualitatibo eta erantzunkideak bultzatzeko.

///

Erredakzioan itzulia.


Bibliografia

Bofill, A. (2005): *Planejament urbanístic, espais urbans i espais interiors des de la perspectiva de les dones*, Quaderns de l'Institut:6, Institut Català de les Dones, Bartzelona.

Carrasco, C. eta Serrano, M. (2006): *Compte satèl·lit de la producció domèstica (CSPD) de les llars de Catalunya 2001*, Colecció Estudis:1, Institut Català de les Dones, Bartzelona.

Col·lectiu Punt 6 (2014): *Mujeres trabajando, Guía de reconocimiento urbano con perspectiva de género*, Comanegra, Bartzelona.

Fonseca, M. (2014): «Casa sin género», I Congreso internacional de vivienda colectiva sostenible, 84-89.



Irudia ~ «Generorik gabeko etxea» lehenengo tailerreko collagea (2005).
Egilea ~ Col·lectiu Punt 6.